

plangintza-faserako tresnak

Lehentasanak erabaki

Helburua

Hurrengo urteetan ekinahalean landuko diren **lehentasanak** erabakitzea, betiere kontuan hartuz, batetik, **ikasle guztien ikasketetan sortuko duten eragina**, eta bestetik, hezkuntza-administrazioak ezarritako lehentasanak. Gutxi izango dira baina interes estrategiko handikoak. Garrantzitsua da **plangintza-prozesu partehartzailea izatea**, asmo hauek beteko badira:

- ✎ Erakunde horretako kideak inplikatzeko prozesuaren fase guztietan: helburuen zehaztapena, plangintza, garapena eta ebaluazioa.
- ✎ Talde-kide izatearen sentipena sustatzea.
- ✎ Taldeko erantzunkizuna areagotzea prozesuetan zein emaitzetan.
- ✎ Konpromisoan eta inplikazioan oinarritutako kultura eta giroa sortzea erakundearen barnean.

Ikastetxearen lehentasanak ezarrita, helburuak idatziko dira eta zuzendaritza proiektuaren denboraldian sekuentziatuko dira.

Helburuak idazteko eta sekuentziatzeko prozedura

1. Lehenik eta behin, diagnosiaren emaitzen argitan, hobekuntza-behar guztiak zerrendatuko dira.
2. Bigarrenik, antolatu eta sailkatuko dira hurbiltasunaren edota osagarritasunaren arabera, eta ikastetxearen lerro estrategikoekin parekatuko dira (ikastetxeak lerro estategikorik zehatu baldin badu alde zurretik)
3. Hirugarrenik, lehenengo iragazkitik pasatuko dira, iragazki hau ikastetxearen jadaneko erantzun ahalmenarekin lotuta dagoelarik: bideragarritasuna, egokitasuna, abagunea eta eragina.
4. Laugarrenik, hezkuntza-administrazioak ezarritako markoaren arabera lehentasanak aztertuko dira.
5. Aurreko beharrak lortzeko helburuak idatziko dira, gure proiektuaren denbora-markoan sekuentziatuta.
6. Garatutako ekintzak jarraitzeko eta ebaluatzeko baliagarriak izango diren indikadoreak ezarriko dira.

[ikus plan estrategikoa egiteko gida](#)

Tresnak | teknikak

Post-it teknika (SEBEA teknikaren bidez osatu)

SEBEA metodologia

Talde nominalaren teknika eta V.U.O. azterketa (bideragarritasuna, erabilgarritasuna, egokitasuna)

Egokitasunaren iragazkia

Hezkuntza politikaren lehentasan-iragazkia

Indar-eremu baten azterketa (force field analysis)

Helburuak adieraztea

Plangintzate sekuentziatorako txantiloia

Kalitatearen adierazleak nola finkatu

Plangintzaren txantiloia